



B O Z K E T A R A  
D O A Z E N  
Z O H A R D I A  
P O N E N T Z I A R E N  
E M E N D A K I N  
P A R T Z I A L A K


## SAR HITZA

Zohardia ponentziari 919 emendakin partzial aurkeztu zaizkio. Emendakin horiek guztiak lantzeko honako urrats hauek eman ditugu:

- Emendakin bakoitzari ekipoak ohar batekin erantzun dio, egindako proposamenarekiko iritzia emanaz eta onartua, ez onartua edota bozkatua izateko beste emendakin batekin/batzuekin transakzionatu den azalduz. 700 ORRIALDETA KO INFORMEA. Eskuragarri dago webgunean. Bertan, emendakin guztien azalpena aurki dezakezue.
- Emendakin bat aurkeztu duten kide guztiei bere emendakinari emandako erantzuna eta informea orokorra igorri zaie, berariaz idatzitako gutun batekin batera. Bi eguneko epea izan dute ekipoak proposatuarekiko desadostasun edo iruzkinak azaltzeko.
- Emendakin guztien artetik 14 emendakin eraman dira bozketara.

	EMENDAKINAK	ONARTUAK	EZ ONARTUAK	TRANSAKZIONATUAK	BOZKETARA
SAR HITZA	31	10	21	0	0
OINARRI IDEOLOGIKOAK	369	236	133	63	7
ILDO POLITIKOA	312	195	117	24	1
ANTOLAKUNTZA	207	133	74	29	6

## EMENDAKINAK



14 emendakin hauek bozkatzera eramateko proposatzerako orduan, honako bi irizpideak hartu ditugu kontutan:

- Emendakinak hausnarketa, hobekuntza eta aldaketa azpimarragarria proposatzen duelako.
- Emendakinak proposatzen duen ideia emendakin ezberdinetan proposatua izanik kide multzo baten kezka edota gogoia adierazten duelako.
- Emendakina egin duen kideak emendakina bozketara eramateko nahia adierazi duelako. Bozkatzera eramatea proposatzen ditugun 14 emendakinak honakoak dira.

## OINARRI IDEOLOGIKOAK (7)

1. Euskal-nafar errepublika (580. emendakina)
2. Sortu ekologista (203. emendakina)
3. Euskal Herria eta Europar Batasuna (585. emendakina)
4. Sortzaile kuota (17. emendakina)
5. Sortzaile izatea beste alderdi bateko izatearekin konpatiblea (21. emendakina)
6. Sortuk sustatutako hauteskunde-aukerekiko lotura (851. emendakina)

## ILDO POLITIKOA (1)

7. Desobedientziaren multzoa (8 emendakin batera)

## ANTOLAKETA-EREDUA (6)

8. Lurraldetasun-irizpidea zuzendaritzan (131. emendakina)
9. Liberazioaren muga 8 urtera (602. emendakina)
10. 60/40 genero-ratioa (24. emendakina)
11. Batzar Nazionalen bigarren eredurako gutxieneko quoruma (707. Emendakina)
12. Erreferendumak egiteko aukera herrialdeka (708. Emendakina)
13. Hiriburuaren antolaketa-eredu konfederala (791. Emendakina)
14. Berme batzordearen osaketa (980. emendakina)

# EMENDAKINAK

---

## OINARRI IDEOLOGIKOAK >> I.I.- SORTUREN IZAERA

---

### I. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

1<sup>1</sup>.- SORTUk bere burua definitzen du erakunde politiko iraultzaile gisa, zeinaren helburua den Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna erdiestea, horrek gaur egungo fase politikoan prozesu independentista eta eraldatzaile bat garatzea beharresten duen aririk, estatu berezitu, burujabe eta sozialki aurreratutako bat eraikitzearen: Euskal Errepublika.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[580]<sup>2</sup> “**Euskal errepublika**” beharrean “**errepublika eusko-nafarra**” behar du gaur egungo fase politikoan eraiki nahi dugun estatu konfederal, burujabe eta sozialki aurreratuaren izenak. Batetik, hobe adierazten duelako eraiki asmo dugun errepublikaren izaera konfederala. Baina bestetik, eta garrantzitsuago, identitatean oinarrituz, lehen momentutik, euskalduna sentitzen ez den nafar jendartearen gehiengo bat errepublika honen eraikuntzatik kanpo uzten ariko garelako. Alegia, praktikan, independentismoa euskal abertzaletasunera mugatzen ari garelako.

#### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ontzat jotzen dugu diskurtso publikoan eusko-nafar errepublikaren izendapena erabiltzeko askatasuna hartzeari. Eusko-nafar errepublika zein euskal errepublika parekotzat har ginitzake, biak balekotzat gutxienez. Estrategiaren garapenean aurrera egin ahala joango gara diskurtsoa fntzen eta irizpideak finkatzen kontzeptu politikoei dagokienez. Ponentzia honetan euskal errepublika izendapena mantentzearen alde egiten dugu.*

1.- Zenbaki hauek Ponentziaren paragrafoari egiten diote erreferentzia. Kasu honetan, Zohardia ponentziaren, “Oinarri Ideologikoak” ataleko 1. paragrafoa da.

2.- Zenbaki hauek aurkeztutako emendakinaren zenbakiari egiten diote erreferentzia. Kasu honetan, aurkeztutako 580. emendakina izan zen hau.

## 2. EMENDAKINA

---

### ZOHARDIA

1.- SORTUk bere burua definitzen du erakunde politiko iraultzaile gisa, zeinaren helburua den Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna erdiestea, horrek gaur egungo fase politikoan prozesu independentista eta eraldatzaile bat garatzea beharresten duelarik, estatu berezitu, burujabe eta sozialki aurreratu bat eraikitzearren: Euskal Errepublika.

---

### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[203] SORTUk bere burua definitzen du erakunde politiko iraultzaile gisa, zeinaren helburua den Euskal Herri independente, sozialista, feminista, euskalduna eta ekologista erdiestea, horrek gaur egungo fase politikoan prozesu independentista eta eraldatzaile bat garatzea beharresten duelarik, estatu berezitu, burujabe eta sozialki aurreratu bat eraikitzearren: Euskal Errepublika.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ontzat jotzen da Sortu antolakunde ekologista gisa definitzea. Ekipoak emendakinaren alde egiten du gai honen garrantzia azpimarratze aldera.*

---

## OINARRI IDEOLOGIKOAK >> 1.2.- SORTUREN BALIOAK

---

### 3. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

25.-Sortuk arbuiatu egiten du merkataritza libreko deritzakeen nazioarteko edozein itun, baldin halakoak merkatuaren eta transnazionalen interesak ezartzen baditu pertsonen eta herrien ongizatearen eta ingurumenaren begirunearen gainetik.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[585] Europar Batasunari dagokionez, Sortuk uste du Batasuna finantza-botereen zerbitzura eta klase herritarren interesei bizkar emanez eraikitako egitura juridiko-politiko oligarkikoa dela, bere demokratizaziorako inolako aukerarik ematen ez duena. Batasuna zutitzen duten oinarrizko tratatuek neoliberalismo basatienaren konstituzionalizazioa suposatzen dute, eta horiek demokratikoki alda daitezkeenik planteatzea herritarrei iruzur egitea eta gure zintzotasun iraultzaileari uko egitea da. Izan ere, hori gertatzeko, iraultza demokratiko bat eman beharko litzateke, simultaneoki, egun batasuna osatzen duten 28 herrialdeetan; eta zintzoak izateko: hori ez da gertatuko.

Independentzia prozesua gauzatzeko, baloratu beharko da, taktikoki, zer den gehien interesatzen zaiguna: Batasunaren barruan mantendu ala ez. **Baina termino estrategikoetan Batasun horretatik kanpo imajinatu behar dugu etorkizuneko errepublika euskal-nafarra**, Europan herrien arteko anaitasunean oinarritzen diren bestelako harreman eta aliantzak sustatuz. Argi esan behar da: Euskal Herriaren subiranotasuna Madrilek eta Parisek bahitzen dute, baina baita Bruselak ere, orotariko erregelamendu eta zuzentarauen bidez. Ez dugu lehenbizikoaren aurrean subiranotasuna irabaziko biharamunean bigarrenari entregatzeko.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Europar Batasuna demokratizatu daitekeen edo ez ebazten ez gara ausartzen. Baina herrien Europa baten aldeko ezkerreko aliantza baten aldekoak garenez behartuta gaude alternatiba si-*

*nesgarri bat mahaigaineratzera. Termino orokorretan bi izan daitezke: 1) Batasun hau demokratizatzeko eta barrutik aldatzeko proposamena. 2) Egitura berri baten aldeko proposamena. Bata zein bestearen alde egiteko baldintza objektiboak zein subjektiboak aztertzen hasi orduko (aitortzen dugu ez garela horretarako gai sentitzen), uste dugu ez garela gai bi aukeretako bat bera ere sikiera imajinatzen hasteko (ez gu, eta ez zoritxarrez Europako ezkerra). Iruditzen zaigu gure hautuek, sinesgarri izateko, alternatibak behar dituztela eskutik. Eta nola gaur egun ez garen horretarako gai sentitzen, uste dugu ez dugula hautu hori esplizitatu behar. Bereziki faxismoa eta populismo xenofoboa ari direnean Europar Batasunaren kontrako diskurtsoa abanderatzen. Beraz, jatorrizko testuaren alde egiten dugu.*

---

## ONARRI IDEOLOGIKOAK >> 2.I.- NOR DA SORTUKO MILITANTE ?

---

### 4. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

74.-Beraz, borondatzeko erabakia izaki, Sortzaile izango da, aipaturiko adin-mugaren eta ideologiaren aldetiko baldintzak betez gero, bere burua afiliatu eta kuotaren ordainkizuna eguneratua daukan pertsona oro. Horretarako egon daitezkeen lan egoera ezberdinak kontutan izango dira. Sortzaile dira, horrenbestez, beren borondatez halakotzat onartuak izatea eskatzen dutenak.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[17] Beraz, borondatzeko erabakia izaki, Sortzaile izango da, aipaturiko adin-mugaren eta ideologiaren aldetiko baldintzak betez gero, bere burua Sortun inskribatua daukan pertsona oro, hala, **Sorturi kuota ordaintzea Sortzaileen borondatzeko aukera izango** da eta inola ere Sortzaile izan eta ponentziak zein emendakinak aurkeztu eta bozkatzeko zein zuzendaritzako kideak bozkatzeko ezinbesteko baldintza. Sortzaile dira, horrenbestez, beren borondatez halakotzat onartuak izatea eskatzen dutenak.

##### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ekipoak jatorrizko testuaren alde egiten du. Militantziak eskubideak eta betebeharrak dakarzki berarekin. Sortuk, bere jarduera garatzeko, diru premiak dauzka, eta gure diru-horniketa instituzioetatik ahalik eta independenteen izatea nahi badugu eta banketxeekiko zorpetzerik nahi ez badugu, militanteon diru-ekarpen boluntarioak baino ez zaizkigu gelditzen. Herri honetan herri-proiektu garrantzitsuak sortu dira herritar eta militanteen diru ekarpenez. Aurrera begira ere horrela behar luke izan. Gainera, kuotaren ordainketa binkulaziorako eta atximendurako bitarteko bat da. Esan gabe doa inor ez dela Sortutik kanpo geldituko kuota bat ordaintzeko aukerarik ez daukalako.*



---

## OINARRI IDEOLOGIKOAK >> 2.3.2.-BETEBEHARRAK

---

### 5. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

110.-Sortzaileak izatea ez da bateragarria beste ezein alderdi politikotako militante ere izatearekin, ezta Sortuk eta/edo EH Bilduk eta/edo EH Baik parte hartzen ez duen beste ezein hauteskunde-plataformatako partaide izatearekin ere.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[21] Sortzaileak izatea ez da bateragarria **hauteskundeetara aurkeztu den beste ezein alderdi politikotako militante ere izatearekin**, ezta Sortuk eta/edo EH Bilduk eta/edo EH Baik parte hartzen ez duen beste ezein hauteskunde-plataformatako partaide izatearekin ere.

#### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Gure ustez Sortzaile izatea eta beste edozein alderdiko kide izatea ez dira bateragarriak (beste alderdi hau hauteskundeetara aurkeztu zein ez aurkeztu). Oinarrizko afera dela deritzogu. Bi sindikatutan afiliatzeak zentzurik ez duen bezala, bi alderdi politikotan afiliatzeak ere ez du zentzurik. Sortu herritar batasuna ez dela esan dugu. Alderantziz, EH Bilduren kasuan bai, beste alderdi bateko kide izan zaitezke EH Bilduko kide izanik. Beraz, jatorrizko testuaren aldekoa da gure jarrera.*

---

## GINARRI IDEOLOGIKOAK >> 2.3.2.-BETEBEHARRAK

---

### 6. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

111.- Sortzaileak, hauteskunde guztietan, Sortuk bultzaturiko hautagaitzei eman behar die botoa, eta zorrozki debekatua du absentismoaren aldeko edo botoaren aurkako deirik, adierazpenik edo kanpainarik egitea, salbu eta, arrazoi taktiko eta/edo estrategikoengatik, abstentzioaren aldeko erabakia Sortuk berak hartzen duenean.

---

#### EMENDAKINA (EZABATZEA)

[851] **Paragrafoa ezabatzea** proposatzen duen emendakina, honakoa arguadiatuz: Gure ustez soberan daude horrelakoak jartzea. Ez du zentzurik. Militanteak badaki nor bozkatu behar duen, hori ez da esaten “por decreto”. Guztiz logikoa da... eta gure militantziak ez bagaitu bozkaten... arazoa guk daukagu, ez gure militantzia. Oso nabarmena da bi puntu horiek azken urteetan egondako abstentzio deien testuinguruan egiten direla. Baina konponbidea ez da hori... betebeharreran sartzea. Gure betiko jendeak ez gaitu bozkatu guk egindako akats askorengatik, beraz konpondu behar dena sakoneko akats horiek dira... ez dekretu bat ezartzea... eta esateko, zer? Sortuko militantea Sorturen proiektua bozkatu behar duela? Mesedez, ez al da ebidenteegia? Sentitzen dut, baina niri mingarria eta dena egin zait hori irakurtzea, haurtzaindegi batean sentitu naiz.

#### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ebidenteegia izanagatik uste dugu paragrafoa mantendu behar dela. Egia da neurri handi batean azken urteetan eman den testuinguruari lotzen zaiola paragrafo hau, baina ponentzia hau momentu politiko honi lotzen zaio eta kanpo zein barne mailan bizi dugun egoerari eman behar dio erantzuna. Birfundazio ariketa sakona egiten ari gara, gogoeta sakonak egin eta neurri zuzentzaile zorrotzak hartzen. Sortuk ibilbide berri bat hasiko du birfundazio kongresuarekin eta iruditzen zaigu bide horren hastapenean Sortura binkulatzen garenon eskubide eta betebeharrak argi behar dutela. Bidean aurrera egin ahala gaur ebidenteegia dirudiena idatzi beharrik izango ez dugula ziur gaude.*

---

## ILDO POLITIKOA >> EUSKAL HERRIA ATEZUAN

---

### 7. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

20.- 60 urteko mobilizazio ziklo historikoaren hondarrean aurkitzen gara. 2011. urtea mugarri historikoa da, herri honi hainbeste eman dion ziklo historikoaren amaiera sinbolizatzen duen neurrian. Mobilizazio ziklo berri bat abiaraztea dagokigu orain, garaiko ekintza ziklo kolektiboarekin bat egingo duena eta Euskal Herriari aurrerabideak eskainiko dizkiona globalizazio neoliberalaren itsaso harroak irentsi ez dezan.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[Blokea] Paragrafo hau da desobedientzia zibilaren afera ildo politikoaren txostenean txertatzeko emendakina jaso duenetako bat. Honako hauek dira zortzi emendakinok kokretuki: 447, 448, 90, 450, 765, 690, 684 eta 696. Zortzi emendakinen egileei luzatu zaie emendakinok transakzionatu eta desobedientzia zibilaren gaia hiru emendakinen bidez barneratzeko proposamena. Inork ez du kontrakotasunik adierazi.

Abianen finkatu zen ezker abertzalearen posizio politikoa desobedientzia zibilari dagokionez. Beraz, Sorturi ez dagokio orain eztabaida hori birproduzitzea. Abianen erabakitakoaren gainean ari gara definitzen Sorturen Birfundazio Kongresuan ildo politikoa zein antolaketa eredu. Zentzu horretan, afera ezin da izan ponentziaren atal ezberdinetan desobedientziaren auzia ikusgarri egitea (horrek ez baitu ezer argitzen), desobedientzia zibilaren inplementazioa fase politiko honetan eta prozesu politikoaren mesedetan nola ulertzen dugun definitzea baidik.

Hori horrela, hurrengo proposamena egiten du zuzendaritza ekipoak:

#### **Ildo politikoaren txostenaren hiru ataletan barneratzea desobedientzia zibilaren auzia:**

- **3.2 atalean.** Hau da Prozesu subiranistaren garapenean nondik eragin behar den definitzen den atalean, eta zehazki 84. parrafoan (burujabetzaren eta demokraziaren aldeko arloz arloko herri- dinamikak). 690. emendakina onartzen da beraz (ikus emendakin partzialen informea 422. orrialdean), eta berridazketan aintzat hartuko da, konfrontazio demokratikoaren estadiora iristeko desobedientzia zibilean oinarritutako dinamikek egin dezaketek ekarpena balioan jarritz.

- **Sorturen praxi politikoa definitzeko orduan**, eta zehazki 114. parrafoan. Sortuk bere praktika politikoan desobedientzia nola inkorporatuko duen azaltzen da hemen. Horretarako 90. emendakina txertatuko da (35. parrafoari egin zaio emendakin hau, gure ustez lekuz kanpo. Ikus emendakin partzialen informea 339. orrialdean). Emendakin honi zehaztapen bat gehitzea proposatzen da: Sorturen praktika guztiak, desobedientzia zibilak barne noski, fase politiko honetan markatu diren helburuei egin behar die ekarpena, eta beraz prozesu politikoa nola elikatzen duen da etengabe hausnartu behar dena.
- **Dinamika Aktibista Propioa garatzen den atalean**, eta zehazki 696. emendakina ontzat jotz (ikus emendakin partzialen informea 493. orrialdean).

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Zuzendaritza ekipoak proposamen honen alde egiten du (emendakinen alde alegia). Zohardia bozkatzuz gero jatorrizko testuaren alde egiten da.*

***OHARRA: Aipatzen diren emendakinak ikusteko kontsultatu orrialde honen gainaldean atxikitako emendakin partzialen informea.***

---

## ANTOLAKUNTZA EREDUA >> I.I.-FUNTZIONAMENDU DEMOKRATIKOA

---

### 8. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

1.-Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkartzailearen muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzaile eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearren: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratiakoan sakontzea, eta, horretarakoxe hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonismoa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-uneke lurralde-batzarrean.
- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkartza-kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarra izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
- Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
- Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizaziorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneke eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez ditzan galdatuz.
- Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzaion agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin

Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-ematea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.

- Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), inoiz ez egotea %60tik gorako eta %40etik beherako gizon- nahiz emakume-portzentaiarik.
- Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabesor daitezen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.
- Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizun aldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.
- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

---

## EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[131] Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkartzailearen muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzaile eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearen: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratikoan sakontzea, eta, horretarakoxe hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonis-

moa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-uneke lurralde-batzarrean.
- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkaritza-kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarra izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
- Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
- Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizaziorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneke eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez ditzan galdatuz.
- Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzea agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-ematea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.
- Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), inoiz ez egotea %60tik gorako eta %40etik beherako gizon- nahiz emakume-portzentaiarik.
- **Herrialdeen ordezkaritzarako berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza nazionaletan herrialde eta errelitate guztiak parekidetasunez ordezkatuak egotea.**
- Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez personarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko

ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabe sor daitezzen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.

- Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizunaldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.
- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

#### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Emendakina hobesten dugu. Datozen urteetan sakon aztertu beharko dugu nola bermatu zuzendaritza organoetan Euskal Herriko errealitate sozial, politiko, ekonomiko eta kultural ezberdinak ordezkaturata egotea. Zentzu horretan, herrialdeen arabera antolamendua bera ere auzitan jarri ahalko genuke, herrialdeen arabera baino ezaugarri komunak dituzten zonaldeen arabera babilizko antolamendua aztertuz. Edozein kasutan, Konferentzietan eredu organizatiboaren gaineko doiketak egiteko aukera izango dugu datozen urteetan.*

## **9. EMENDAKINA**

---

### **ZOHARDIA**

1.-Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkartzailearen muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzaile eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearen: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratikoan sakontzea, eta, horretarakoxe hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonis-



moa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-uneke lurralde-batzarlean.
- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkaritza-kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarra izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
- Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
- Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizaziorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneke eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez ditzan galdatuz.
- Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzaion agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-ematea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.
- Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), inoiz ez egotea %60tik gorako eta %40etik beherako gizon- nahiz emakume-portzentaiarik.
- Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabe sor daitezen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.

- Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizun aldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.
- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

---

## EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[602] Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkariaren muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzaile eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearen: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratiakoan sakontzea, eta, horretarako hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonismoa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-uneke lurralde-batzarrean.
- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkari- kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarria izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
- Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
- Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizatorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneke eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru

aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez ditzan galdatuz.

- Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzaion agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-ematea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.
- Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), inoiz ez egotea %60tik gorako eta %40etik beherako gizon- nahiz emakume-portzentaiarik.
- Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabe sor daitezen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.
- **Sortuk uste du fase politiko berrian bizi osorako liberatuen figurari amaiera eman behar zaiola, eta ardurak, naturaltasunez, modu iraunkor eta periodikoan berritu behar direla. Hori dela eta, egituraren berritze eta freskatze iraunkorra bermatu zein behartze aldera liberazioen iraupenari muga jarriko zaio: 8 urte. Epe hori pasatuta, liberaturik egon den kidea lan merkatura itzuliko da eta ezin izango da Ezker Abertzaleko beste antolakunde edo egituretan liberatu, gutxienez, 2 urte pasa arte. Berme batzordeak salbuespen mugatu-  
ren bat finkatzen ahalko du.**
- Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizun aldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.
- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Lehenik eta behin erabat sinetsita gaude agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epe-mugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat, erreleboak modu egokian eman daitezen eta Sorturen jardunaren jarraidura bermatu dadin bitartekoak garatuko dira beraz. Horrekin batera, esana dago arduraren guztien etengabeko ebaluazio mekanismoak ezarriko direla. Hori esanik uste dugu ez dela komeni liberazioen iraupenari 8 urteko muga jartzea, hurrengo arrazoiak medio: 1) Militante baten zikloa (denbora osoko jardunean) 8 urtekoa baino luzeago bada (uste dugu posible izan daitekeela), ziklo hori etetea Sorturentzat galera izan daiteke. 2) Militantziak hautatzen ditu zuzendaritzako ardurak, beraz arduraren politikoetan dauden kideak militantziaren ebaluziopean daude 4 urterik behin. Gure kidegoak militante batek liberazioa eskatzen duen arduraren baten 8 urte baino gehiagoz iraun behar duela baderitzo, ontzat jo beharko genukeela deritzogu. 3) Gaurko egoera da Kontseilu Nazionalerako 350 proposatuen artean soilik 37k eman dutela baiezkua. Egun liberazioak betetzeko zailtasunak baditugu 8 urteko epemuga jarrita arduraren batzuk betetzea ezinezko ere suertatu daiteke baldintza hauetan. Beraz, jatorrizko testuaren alde egiten dugu.*

## **10. EMENDAKINA**

---

## **ZOHARDIA**

1.-Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkartzailearen muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzailerik eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearen: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratikoan sakontzea, eta, horretarako hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonismoa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-unekeo lurralde-batzarrean.

- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkaritza-kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarra izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
  - Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
  - Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizaziorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneko eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez ditzan galdatuz.
  - Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzaion agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-ematea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.
  - Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), inoiz ez egotea %60tik gorako eta %40etik beherako gizon- nahiz emakume-portzentaiarik.
  - Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabe sor daitezen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.
  - Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizun aldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.

- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

---

## EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[24] Sortu erakunde demokratikoa da, demokrazia sakontzea eta errotzea helburu duena, bai jendarte osoaren antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, bai Sorturen beraren antolakuntzari eta barne-funtzionamenduari dagokienez, horretarako, apustu irmoa dagielarik gaur egun nagusi den demokrazia soilik ordezkariaren muga estuak gaindituko lituzketen demokrazia partehartzaile eta zuzenezko adierazpideetarantz aurreratzearen alde. Horregatik guztiarengatik, Sortuk behartu egiten du bere burua behar diren mekanismo guztiak inplementatzera honako hau bermatzearen: alde batetik, bere barne-funtzionamendu demokratiakoan sakontzea, eta, horretarako hain zuzen, militantziaren partaidetasuna eta protagonismoa ahalik eta handienak bihurtzea erabakiak hartzerakoan. Hala bada, helburu aldibereko bikoitz horrek ondoko hau guztia beharresten du:

- Sortzaile guztien berdintasuna bermatzea pertsona bat boto bat oinarrian finkatuz.
- Ildo politikoaren baitako erabaki oro sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hartuko dela bermatzea, erabakizun den gaiari dagokion unean-uneke lurralde-batzarrean.
- Bermatzea, halaber, Sorturen zuzendaritza- eta ordezkari-kargu guztiak sufragio unibertsal eta zuzenekoaren bidez hautatuak izan daitezela. Muga bakarra izango du sufragio unibertsal eta zuzeneko horrek, genero-zuzentaraua hain zuzen ere, organo horietarako hautatuko diren gizonezkoen eta emakumeen kopurua berdintze aldera.
- Bermatzea, era berean, Sortzaile oro hautesle eta hautetsi izan ahal izatea, nahiz Sorturen Zuzendaritza Nazionalerako, nahiz herrialde- eta herri-mailako zuzendaritzetarako.
- Bermatuko dira, baita ere, maila guztietako zuzendaritzek egindako kudeaketaren kontrolerako eta fiskalizaziorako mekanismoak, dagokion zuzendaritza bakoitzari, urtero kudeaketa-txosten bana gutxienez, edo, unean-uneke eta tokian-tokiko Batzarretan Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatuz gero, baita kontu-emate beren-beregiak ere aurkez dituzan galdatuz.
- Mekanismo ezeztatzaileak egotea ere bermatuko da, Sortuko edozein kargu hautetsi bere arduratik aldenarazia izan ahal dadin esleitu zitzaion agintaldia bukatu baino lehen ere, baldin Sortzaile-kopuru aski adinako batek hala eskatzen badio kargu hura dagokion batzarrari. Ezeztapenok beti ere banakoak izango dira, inoiz ez kolektiboak, eta ezeztapen horretarako boto-e-

matea arduradun hori hautatu zuen hautesle-multzo berak egin beharko du.

- Gizonezko- eta emakumezko-kopuruari buruzko berdintasun-irizpide bermatzaileak ezarriko dira, dela zuzendaritza-organoetarako, dela bozeramailetza, hautes-zerrenda, lan-talde eta abarretarako. Zehazki, bermatuko da, Sorturen zuzendaritza-alor guztietan (Kontseilu Nazionala eta Tokikoak eta kasuan Herrialdeko Kontseilua), **inoiz ez egotea %60tik gorako gizon eta %40etik beherako emakume portzentaiarik.**
- Agintaldien hurrenez-hurrenketari epemuga jarriko zaio. Sortu erabat sinetsita dago ezen agintaldien errepikapen hurrenez-hurrengotua eta epemugarik gabekoa ez dela ona ez pertsonarentzat ez erakundearentzat. Horregatik, Sortuk behar diren mekanismoak abiaraziko ditu halakorik gerta ez dadin, Sortzaile berriak eta berauen artetik koadro berriak etengabesor daitezen sustatuz, eta, ardura-postuei eta eginkizun militanteei dagokienez, kargudun berri horien txanda-hartzea aldeztuz. Eta hala izango da, bai tokian tokiko mailan, baita nazio-mailan ere.
- Bateriaezintasun-irizpideak ere ezarriko dira, karguen (barnekoen eta kanpokoan) aldibereko metaketa ekiditearren eta, hartara, hainbat erantzukizun aldi berean edukitze horretatik erator litekeen edozein agintekeria saihestearren.
- Gardentasuna, bai antolakuntzarena bai kontuena, bermatuko da, horretarako joko arau garbiak ezarriz eta eskatimen konponbidea ahalbidetzeko bide eta prozedimenduak ezarriz.
- Bermeen Batzorde bat eratuko da, zeina arduratuko den, militantziaren eskubideak osoki zaintzeaz ez ezik, baita antolakuntza-printzipio hauetatik erator daitezkeen betebeharrak estatutario eta/edo arautegizko guztiak betearazteaz ere.

#### *Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ratio hori, bi generoei dagokienez aplikatzea hobesten da, ordezkartzari dagokionez emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ratio egokitzat jotz. Jakinik ere, praktikan, emakumezkoak %40a baino gutxiago ez izatea bermatzea izango dela erronka. Prozesu feministari bultzada berezi bat emateko garaia da. Kontseilu Nazionalerako hautagai izateko 7 emakumek baino ez dute eman baiezkoa. Egoera hau iraultzeko sakoneko neurriak behar ditugu, ondorio praktikoak izango dituztenak, eta ez gure buruak asebetetzeko neurri "politikoki zuzenak". Beraz, jatorrizko testuaren alde egiten dugu.*

---

## ANTOLAKUNTZA EREDUA >> BATZAR NAZIONALA

---

### II. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

99.-Batzar Nazionala honako bi modu hauetako batean egin ahal izango da:

- Lehenak Sortzaile guztiak bilaraziko ditu (gehi egokiera horretarako izen emanda dauden pertsona ez-Sortzaile guztiak, baldin aukera hori eskaini bada), eta helburua izango du gogoe-ta egin eta garrantzizko hainbat erabaki hartzea (Sorturen estatuak aldatu ahal izatea barne).
- Bigarrenak Tokiko Arduradun Politiko guztiak bilaraziko ditu, eta Kontseiluko Nazionalako kide guztiak nahiz herrialde-mailako arduradunak (Herrialdeko Koordinakundea), eta, hala badagokio, baita herrialde-zuzendaritzakoak ere; beraz, partaide guztiak kargu hautetsiak izango dira. Batzar-era honen helburua izango da, koordinazioa bera ez ezik, baita larritasun bereziko erabakiak hartzea ere. Azken kasu honetan, Tokiko Arduradun Politikoak ez dira nor bere iritziaren eramale izango, baizik eta Tokiko Batzarraren edo, gutxienez, Tokiko Kontseiluarenak, halako moldez non Tokiko Arduradun Politikoak, soilik Tokiko Batzarra edo Kontseilua egin baldin bada, ahal izango baitu Batzar Nazionalan parte hartu. Horretarako, izan ere, aldeztu behar dira Tokiko Batzarrak edo, gutxienez, Tokiko Kontseiluak, zeinetara, hain zuzen ere, Kontseilu Nazionalak, behar bezain aldeztu behar ere, bidalia beharko baitu izan hartu beharreko erabakiari buruzko dokumentu argudioz ongi hornitu bat.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[707] Batzar Nazionalaren bigarren aldaera honetan, batzarra ospatzeko tokiko arduradun politikoen quorum minimo bat finkatuko da. Quorum hori Euskal Herrian eratuta dauden Sortuguneetako arduradun politikoen %60a izango da.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Emendakina ontzat jotzen dugu.*



---

## ANTOLAKUNTZA EREDUA >> ERREFERENDUMA

---

### 12. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

103.-Sortuk erreferendum-prozedurak artikulatu ahal izango ditu garrantzi bereziko erabakiak hartzearren, Kontseilu Nazionalak hala proposatuz gero, edo, gutxienez, Sortzaileen %15ek edo tokiko Sortuguneen %20k. Herrialde bakar batek, ordea, ezin izango du erreferenduma proposatzen duen Sortzaile- edo Sortugune-kopuruaren %40tik gora berak bakarrik eskaini.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[708] Halaber, herrialde mailako erreferendumak antoatzeko aukera izango da, herrialdeko Sortuguneen %35ak hala eskatuz gero.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Ontzat jotzen dugu. Herrialde mailako erreferendumak herrialde mailako problematiken inguruko erabakiak hartzeko izango direla ulertuz beti ere, nazio mailako gaiak zein estrategiaren garapenari erantzuten diotenak erreferendum nazionalen bidez ebatziko direlarik.*

---

## ANTOLAKUNTZA EREDUA >> BERMEEN BATZORDEA

---

### 13. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

105.-Bermeen Batzordea herrialde bakoitzak izendaturiko gizon-emakume dupla edo biko batek eta militantziak kongresuan hautaturiko beste bi gizon-emakume bikok osatuko dute. Ahal den neurrian, hobetsiko da hautaturiko pertsona horiek bizitza militante luzea eduki izana Ezker Abertzalean.

---

## EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[980] Berme Batzordearen osaketa hau sobera konplexua iruditzen zait. 14 kidez osatutako Berme Batzorde bat? Ez dut uste beharrezkoa denik. Orain arteko estatutuetan proposatzen zen 5 kideko Berme Batzordea proposatzen dut, beti ere genero parekidetasunari dagokionez %60-40 ratio betez.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Emendakina ontzat jotzen da, eta orain arteko estatutuek proposatzen zuten legez, Kontseilu Nazionalak hautatutako 5 kidez osatutako Berme Batzordea hobesten da.*

---

## ANTOLAKUNTZA EREDUA >> HIRIBURUAK ETA HIRIBILDU HANDIAK

---

### 14. EMENDAKINA

---

#### ZOHARDIA

129.-Zentzu horretan, tokiko erabakigunea Hiriburuko Batzarra izatea planteatzen dugu, eta ez auzo bakoitzeko batzarra. Hala ere, auzoko asanbladak mantentzearen aldeko apustua egiten dugu, deskargurako, eztabaidarako eta ekarpenetarako Hiriburuko Batzarraren azpi-gune gisa.

---

#### EMENDAKINA (HOBEKUNTZA)

[791] Zentzu horretan, tokiko erabakigunea Hiriburuko Batzarra izatea planteatzen dugu, baina bertan auzoetako batzarren erabaki/iritzien islada jasota geratzea bermatu beharko dugu. **Auzoko asanbladak mantentzearen aldeko apustua egiten dugu, deskargurako, gertuko eztabaidarako gune naturalak eta momentuz Hiriburuko Batzarrarekin lotuta ez dagoen hainbat kidegoaren iritziak eta ekarpenak jasotzeko formula bezala.** Horregatik, etorkizuneko helburua kidego osoa Hiriburu edo Hiribilduaren batzarrarekin lotzea bada ere, onartu behar dugu ezin izango dela kolpe bakar batean egin, hots, prozesu baten ondorioz lortuko dugula hori errealitatea bihurtzea, beraz, beharrezkoa da auzoetako batzarren pulsoa Hiriburuko Batzarrean jasotzea, Nazio Batzarrera errealitate hori ere hel dadin (bozketa baten bitartez izatekotan ponderatu beharko litzateke auzoetako batzarren iritzia hiriburuko batzarraren baitan Hiriburuak edo Hiribilduak nazio batzarrean izango dituen bozken arabera).

Azalpena:

Alde batetik ulertuta hiriburu mailako batzarra erabakigune bezala dugula helburu, egun oraindik errealitate horretara heltzeko bide pedagogiko bat erabiltzea planteatzea, eta horrekin batera auzoetan dauden iritziak jasota gera daitezen bermatzea. auzo batzuen batzarraren desaktibazioa ekidituz. Auzo batzarrak egun militante askoren harremanarako espazio naturalak dira, hainbat kideentzat eztabaidarako espazio “erosoak” eta hortaz marko hauen desaktibazioa ekiditu behar dugu.

Gainera Hiri mailako bozketetan iritzi hori era ponderatuan jasotzea bide egoki bezala ikusten dugu. Nazio batzarrean, Hiriaren iritzian auzo batzuen sobredimensionatzea ekidituz ere bai.

*Zuzendaritzaren Iritzia*

*Zohardiak hiriburuko antolaketari buruz egiten duen proposamena ez dago emendakinak proposatzen duenarekin kontraesanean. Batzar Nazionaletan (bigarren aldaerakoetan, tokiko ordezkariez osatuko direnetan) hiriburuko iritzia nola jasoko den hiriburu bakoitzak erabaki ahalko du. Iritzi hori auzoen bozka ponderatuz osatuko bada eta horretarako auzo batzarrak deituko badira, bidea irekita dago horretarako. Zohardiak erabakigunea hiriburuko batzarrean dagoela dionean hiriburuko ildo politikoari lotutako gaietaz ari da. Hiriburuan ildo politiko koherente bakar bat garatzearen aldeko apustua egiten da, eta ondorioz, erabakigunea (ildo politiko horren definizioari dagokionez) hiriburua izatea proposatzen da, auzoak ildo horri lotuko zaizkiolarik. Beraz, jatorrizko testuaren alde egiten dugu.*